

TXILLARDEGIren SOZIALISMOA

« Enbata » astekariaren 390. zenbakian artikulu bitxi bat agertu zitzai-
gun : « E.H.A.S. y el abanico político
vasco » izenburuaz eta Txillardegiren
lumaz eta pentsakeraz idatzia. Esan
beharrean gaude noski, urrengo zen-
baki batean eta astekari berebean,
Davant-ek artikulu horri ihardespen
bat eman ziola, eta aski ederki eman
ere. Hori horrela delarik, guk ez dugu
asmorik Alderdi mailako planteamen-
du zehatzetan sartzeko, hori nolazpait
egina dagoelarik, eta horrenbestez

Txillardegiren zenbait tesi arakatu
nahi genituzke. Arakatu eta gure
ahalmenen arabera tesi horien zinez-
ko politik kontenidua ager erazi ; po-
litik mami hori burges tipiaren (eta
Txillargiren kasuan areago) ideologiaz
estalirik doan neurrian hainbat arris-
kugarriago baita ideologi iraultzaile
batentzat.

Besteak beste, Txillardegiren ideo-
logian hiru tesiok defentsatzen dira,
eta banan banan ager ditzagun.

LEHEN TESIA

MARXISMOAREN FENOMENOA EUSKAL HERRIAN
ERLIJIOAREN ONDORIO BAT DA

Burges ideologia, dakigun bezala,
bere klase interesen aldeko burrukan,
burruka horren funts funtsean datzan
harma bat da eta ez da beti itxura
berberaz azaltzen den elementua. Ez
da beti alegia egitur ekonomiko, edo
ideologiko ez den beste edozein inst-
antzaren aurka edo alde, besterik
gabe eta nolnahi agertuko. Beharrik
ere ez baitu maiz ; baina zuzen ere
ideologia zerbait kritikatzeko haina

zerbait *estaltzeko* ez baita alferrik
erabiltzen. Ideologi horren abotsa
egunean zehar mila bider entzuten
dugularik, ez dugu beti kontra daukan
ideologi iraultzailea kritikatzu-
ten, baizik eta edozein giza gertakari
interpretatzekoan ere hantxe dugu
ideologi horren presentzia.

Bestalde, hildo berberatik jarrai-
tuaz, burges ideologiak bere etsai

duen beste ideologia bat kritikatea, « demokrazia » eta « pluralismoa » bezalako terminuen bitartez, burges logikaren pean aurkitzen da komunzki. Hori bistan da : proletal ideologia *proletalgoaren diktadura* zainduz baldin badator, eta nola ez etorri, burges ideologia bere « demokrazia » eta « pluralismoarekin » kontrajarriko zaio beti. Hauzia da, « demokrazia » eta « pluralismo » honen azpian gizartearen Kapitalist moduari eutsi nahi zaiola, hau da, produzio molde kapitalistari, ideologi bat betidanik berari dagokion gizarte egituren euskarri baita halabeharrez. Nahita edo nahi gabe, esplizituki edo implizituki, ideologi bat sistima baten alde eta besten kontra doa ; Txillardegirena ere orobat berdin.

Zer egiten du bada, ideologiaren eremuan burges jarrera zuhur bat dakarren hark ? Txillardegik egiten duen huraxe, jakina denez. Hitz batean esateko, hauxe esango genuke : produzio kapitalistaren aurrean irtenbide bakarra den *teoria*, eta azken finean *politika*, erlijioaren Ideologi arrunt bat balitz moduan azaldu eta bere sarrera Euskal Herrian fenomenologiaren maila metafisikoan planteatu. « Esta corriente (la marxista) es tanto más fuerte (Italia, Francia, Euskadi) cuando más potente haya sido en el país la Iglesia Católica. El fenómeno tiene explicaciones flagrantes cuando se estudia el marxismo sin complejos, y no vale la pena de insistir. » Nola ez ba ! Ideologi honi horixe bai-

zik ez bazaio izan ere komeni : marxismoa goiegiturako fenomenu ideologikua gisa ager erazi erlijioaren *odorio* arrunt bat bezala.

Bestalde ordea, nola ez du erabiliko bada horrelako hitzegi bat ? Nidakidanez, burges tipiaren ideologia ideologiaren eta juridik goiegitureta funtsatzen du bere kritika : « eskubiak », « libertatea », « askatasuna » eta antzeko terminuetan izan ezik eduki bere kritikarik funtsatzen, eta ezin dezake ere funtsa egia esanik ideologi hori azken batetan idealistadenez gero. Zergatik ez da orduan beste terminologi bat agertzen « iraultzaile » hauengan ? Arrazoi politikoa da.

Halarik ere ez zazula pentsa ideologi horrek gauzen esplikaziorik erduenik edo. Bai horixe : horrek « *tierras explicaciones flagrantes* », eta zehar nahitaz gainera. Eta egia da, zehar arraio ! Soil soilik ohartxo bat egiten noski : « *esplikazio flagrante* » hori ideologia *jakin* baten esplikazioak dira, hots, *burges* ideologiaren esplikazioak.

la horrenbestez, puntu honekin gure tesia :

Marxismoa, Euskal Herrian eta non nahi, *egoera sozial* jakin baten ondorioa da ; eta zehazkiago adieraziaz kapitalist sistimaren ikerlan teorikua eman duen produktu bat da, jarrera iraultzailearen hildotik.

BIGARREN TESIA

EUSKAL EZKERRAREN BAITAN DATZAN ARAZOARI
EZIN DAKIOKE MARXISMOAK IHARDESPENIK EMAN

Nola erantzun dakiok bada ! ! Ezin da hori. Ezker hori marxista den heinean sozial-demokraziaren metodo sikosozialak burges interesen eusle gisa arbuaiatuak dira herriaren aurrean eta burgesia horrek ezkerren barne gero eta zeregin gutiago dauka. Burges ideologia, nahiz kolore batekoa

nahiz bestekoa, zirriztu bila dabur betidanik langile eta iraultza mugimendutan. Eta zirriztu horietan sartu du bere burua, metodo sikosozial horiekin. Txillardegiren kezka ere horixe da ; marxismoa garai irtetzen bada, nola geldituko dira burges eta burges tipien metodo hauk

« sikosozilogia », « estrukturalismoa », « zientzien interdiziplina », eta abar. Metadologian, ez dago esan beharrik, posizionamendu politikoak finkaturik daudela, eta hainbatean, bai ideologian eta teorian, burruka politiko bat dagoela azken mementoan.

Beste alde batetik joaz, ez dugu uste E.H.A.S. klase mailako planteamendu *erradikal* eta *independiente* batzuekin datorrenik euskal politikaren plazara. Hori bera Alderdi hortako militante eta eragileen bidez ere jakin litekeen gauza da : moderatu samar ageri da eta ezkerreko zenbait indar « bildu eta eratu nahi lituzke » beraien ahoz esateko. Modu hontan, eta nik dakidanez, kultur alorrean du gainera arrakastarik gailena orain artio. Jainkoak libra gaitzala sozial-demokraziaren euskal kultur taldeetatik ! !

Baina, gure hizkuntzalaria bere eskemetatik kanpo geratu bide zaio halaz ere Alderdi hau : ez omen du oraindik beste hitzik bilatu aukeran eta hor erantzi dio bere burukomina : « gauchista ». E.H.A.S.-ek nahiz sozial analisietan marxismoa erabiliko omen duen arren, bera Alderdi « ireki » bat dela aitortzen du euskal ezkerrearen barnean. Eta « irekitasun » honetan ere ez zaigu sartzen gure hizkuntzalaria. Non sartzen zara bada ? Edo sartzen ote zara ezker horretan ? Davantek hauzia garbi utzi du : « hement » ez zarela sartzen, « bestean » baizik, hots, eskuinean.

Beti bezala, eta izan ere politika ez baita *klase burruka* baizik azken finean, klaseen arteko *mugarriaz* hitze-gin beharra dago eztabaida ideologikopolitiko hauetan. Marxismoaren eta ideologi iraultzailearen baitan burgesiak beti sartu du bere ideologiaren elementurik, guztiz gaitza da banguardian bertan ere elementu horik erabat desegitea. Hori klase horren botereak esplikatzeko du noski. Benetan arriskugarri deritzat beraz, klase mailako politika *independientea* ez den heinean, politika hori zehatz eta mugatuki *proletalgoaren* « lineatik » ez doan neuriran, Alderdi bat « irekia » eta « ezker guztiarentzat » dela aitortzea. Uste dut euskal ezkerrearen ilunpe honetan ez dugula oraino praktikan behinpehin, klaseen arteko politika

fusionista bat, *autonomista* bat eta *independiente* bat zehazki bereizi.

Jakina, Txillardegik eta antzekoek ez digute horretan asko lagunduko, eta beronek hobe luke hizkuntzaren *mailan* dihardu, ondo bait dihardu hemen, eta hemen ongi bezain oker bestetan. Kontuz beraz *mugarriarekin !* Nik dakidanez, bai teorian eta bai praktikan, egungo *Euskal Herri*an, politika sozialista bat *daraman Alderdi L.A.I.A. da*. Ez ezkerkerian erori delako, ez erreformamismoan amildu delako, ez eta ere zenbait sozialista idealistek uste duten moduan « *euskal gizarte osoaren* » interesak defendatzen ez dituelako, baizik ta interesok euskal proletalgoaren politik *jarrreratik* gordetzen dituelako. Zer dela ta ? Marxismoa dela ta ? Marxismoa dela ta, Txillardegi jauna ! Bai, horretxegatik !

Ez da harritzekoa, inoiz ez da izan da, intelektualen ideologia edo filosofia, zenbait intelektualena noski, idealismo eta epsontaneismo ustel hontaz beterik etortzea. « E.H.A.S. no podrá contribuir de modo muy efectivo a la solución del problema de conjunto de la izquierda vasca ; puesto que tiende a recuperar el terreno — ya bien ocupado, creíamos — que llamaremos, hasta encontrar un término más adecuado, terreno de la izquierda marxistoide, izuierdosa, « gauchista », o como se quiera llamar ; y que L.A.I.A., incluso E.T.A.-P.M., y varios grupúsculos de sigla extraña, podían ocupar ampliamente. » Zer nahi den ? Marxismoarekin zer ikusirik ez leukan Alderdi bat eraiki, bistan denez. Zertarako ? Euskal burgesiaren interesak « ezkerretik » defendatzeko. Hobe da honela ezker fama aspaldidanik irabazi zuen intelektual batentzat, eta batik bat bere interesak defendatzen dizkion burgesiarentzat. Intelektualen ideologia eta filosofia espontaneista, egon ere, ia beti burges klaseari makurturik baitago.

la puntu hau amaitutzat jorik, gure bigarren tesia :

Ezkertiar indar politiko abertzaleei soil soilik marxismoak ihardetsi dakeke beren interes orotan ere, alde batetik, *ezkerkerian* erori gabe, eta bestetik, *erreformismoaren* amiltegitik gordeaz.

HIRUGARREN TESIA

MARXISTA EZ DEN EUSKAL EZKERRAK, ARAZO OSOAREN BARNE,
NAZIONAL ARAZOARI EMATEN DIO LEHENTASUNA
KLASE BURRUKAREN ALDAMENEAN

Hori horrela baldin bada, oker dabil eta aski oker gainera Txillardegik aipatzen duen ezker hori. Hori ere, ordea, ez dut uste halaxe denik, Davant-ek berak argiro garbi jarri duenez : « ...no se puede separar la liberación nacional y la liberación social, como lo hace Txillardegi ».

Txillardegiren sozialismoa, alemaniar eta laboristen sozialismoa da, erreformista ororen sozialismoa, langile interesak behin eta berriz traizionatu dituen « sozialismoa » hain zuzen. Hori bai, sozialismo « humanistak » eta « pluralistak » ere bere onetsia ematen dio sozial-demokraziari maila ideologiki-teoriku bateari behinpehin, eta hori inplizituki sarri-enik. Ereku kontzeptual berdintsutan pentsatzen dute maiz.

Hala nola, historian eta gizonarengan, *eboluzioa* eta *antropologiaren* kontua dela ta. Gure herrian modan jartzen ari den beste kontu bat zera da : « ni ez naiz marxista baina materialismo historikoa haintzakotzat hartzen dut » ; « gure Alderdian marxismoa metodo analitiko gisa erabiltzen da, ez besterik ». Eta nik ezin dut konprenitu marxista nolaz arraio izan litekeen materialismo historikoa hartuaz eta materialismo dialektikoa utziāz, bi diziplinaon printzipioak elkar osatzen dutenez gero, nahiz eta ba-koitzaren *objetua* berezia eta bestela-koa den.

« ...sigue en pie sin grandes cambios, incluso con E.H.A.S., el problema de la izquierda vasca NO MARXISTA : europea, pluralista, realista, consciente de la prioridad nacional en tanto su IDENTIDAD ETNICA esté en peligro ». Jo hortik, Euroropako paradisuatik alegia, errerealismora heltzeko. Zeren errerealismora ? Burges errerealismora noski : politika *positibista* eta *posibilistaren* errerealismora alegia.

Txillardegik oker dabil, bai. Zeren euskal burgesia, tipia kenduaz behintzat, ez baita sekula « conciente »

izan nazional arazoarekiko, eta euskal populua. Eta jakina denez, Txillardegik jakin behar luke, edo bestela ez du jakin nahi eta orduan bakarrik zergatik den, euskal populua diola ezeri lehentasunik ematen. Eta euskal ezkerrek ere, espainolistakasu beste kasu bat da. Eta ez za lehentasunik ematen, populua erongi baino hobeto dakielako, nazional arazoa ere arazo *sozial* bat dela, baina *jakin* eta determinatu batean Nazional arazoari *lehentasuna* esan maion tesi hori, burgesa da, erreformista denez gero, eta hori jadanik du euskal populua onetsiko, beste « haik » kenduz gero. Gauza jakin da, hortaz, zure mezua inork ez du adituko, populuko inork noski, « beste tek » bai baina ; hori desertuan pentsatzea baita jadanik eta gezurdirudi intelektual baten mezua populua aldez aurretik gainditurik edukitza. Garaia da, bestalde, gainditu edukitzeko, herrira begira bizi nahi lukeen batentzat are gehiago. *Bonori* begira ?

Euskal burgesi nazionalistak bakararra du iraultzaren hildotik abiatzeko eta burrukatzeko : euskal proletari-
goak ezarririk duen *bidea* da, baina klase horren *linea* politikoa, baina eta oraino jakin gabe baldin bada. Hortixek bakar bakarrik lor daitezke gainera, sozialismoaren aldeko burruka-
karen baitan doan *nazional* askatasuna. Hauxe da, ez besterik, alternatibak *iraultzailea*. Beste alternatibarik ez bada, bai, baina beste oro *erreformista* da, edo, ezker idealistaren *utopia* bestela. Azken alternatiba burges aktibismoaren zentzupean agertzen delarik, eta erradikalismo infantez batez estalirik sarri, erreformismo oso errez eror liteke, eta erori erortzen da.

Puntu honekiko gure azken tesia Nazional arazoari lehentasuna esan maion euskal ezkerre, zernahi delarik ere, *erreformista* da. IZARREKO.